

udaltop

UDALETAKO  
EUSKARA  
ZERBITZUEN  
TOPAKETAK



IZENBURUA:

16 urtez azpikoen kirola:  
antolamendua eta araubidea EAEn

EGILEA:

Dorleta Ugalde Usandizaga

DATA:

2016/04/21



## Aurkibidea

1. Aurrekariak .....	6
2. Eskola kirolaren araubidea eta antolaketa.....	4
3. Kirol begirale eta entrenatzaileen formakuntza.....	9
4. Ondorioak.....	10



## 1. Aurrekariak

---

Autonomi Estatutuaren 10.36 artikulua dionaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (aurrerantzean EAE) erabateko eskumena du kirol gaietan. Eskumen horren babesean eta kirolak gure gizartean, hezkuntzan, osasunean eta ekonomian duen garrantzia ikusirik, otsailaren 19ko 5/1988 Legea, Soin Kulturarena eta Kirolarena onartu zuen Legebiltzarrak.

Kirolaren arlo ugari antolatzeke behararen ondorioz sortu zen legea, ordura arte arauketa eta egituraketa urriak ziren eta. Lege honetan aipatzen da lehen aldiz Eskola Kirola. Orokorrean, Eskola kirolaren oinarri bezala, haurren heziketa eta bere pertsonalitatearen garapena, kirola beraien bizimoduan barneratzeko ohiturak lantzea eta lehiaketara soilik bideratua ez dagoen kirol praktika anitza bultzatzea aipatzen ditu.

Legeak aipaturiko helburu edo oinarri horiek errealitate bihurtu nahian, 160/1990 Dekretua, ekainaren 5koa, Eskolako kirolari buruzkoa onartu zen, eskolako kirol programak lantzeko funtsezko arauak ezarriz. Nagusiki eskolarteko eta federazioetako lehiaketa bikoitza saihestu nahi izan zen 14 urte bitarte-arte, lurralde esparrua mugatuz, ohituraz kirol ekintzetan parte hartzen ez zuten ikasleak bildu eta babestu asmoz.

Dekretu hau oso eztabaidatua izan da urteetan, aldeko eta kontrako jarrera sutsuak eraginez indarrean egon den 18 urteetan. Aldekoek bere baitan dituen balore hezigarriak nabarmentzen dituzte; hala nola nahi duen ikasle orok hartu dezakeela parte, kirol praktika anitza bultzatzen dela profesionalizazio goiztiarra ekidinez eta ikastetxearen balio hezigarriak ziurtatzen direla. Kontrakoez, aldiz, esku-hartzailea dela diote, gurasoen erabakien gaineratik ezarriz eta goi mailara iritsi nahi duten kirolarientzat atzerapena eta oztopoa dela argudiatuz.

Gaur egun indarrean dagoen 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena onartzeak eta eskola kirolak urte horietan izandako garapenak, arauak gaurkotzeko beharra azaleratu zuen.

Behar horri erantzunez onartu zen 125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa; aurrekoaren printzipioekin koherentea, baina praktikan malguagoa.

Ez da ahaztu behar EAE Eskola kirola arautzen aitzindaria izan zela, Estatuan lehena, eta oraindik modu honetan arautua duen bakarra.



## 2. Eskola kirolaren araubidea eta antolaketa

---

### 2.1. Zer dio indarrean dagoen araubide komunak

Gaur egun, zuzenean Eskola-kirola arautzen duten hiru arau daude indarrean:

- 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena
- 125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa
- 391/2013 Dekretua, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketan diziplina-araubideari buruzkoa

Eskola kirola, zeharka, beste araudi batzuetan ere aipatzen da eta beste batzorde batzuen gaitan sartu (Euskadiko kirol federazioen dekretuan, Kiroleko indarkeriaren aurkako Batzordean, Kirol Justiziako Euskal Batzordearen gaitan..) baina Eskola kirolaren araubidea eta antolaketa azaltzeko orduan kirol legea eta eskola kirolari buruzko dekretua dira ezinbestekoak.

**14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarenak** dio aginte publikoei dagokiela, bere eskumen-esparruaren barruan, oinarriko kirola, batez ere eskola-kirola, bideratzea eta sustatzea, euskal kirola maila guztietan garatzeko eragilea den neurrian.

Legea, zehazki, bere V. Tituluan dihardu eskola kirolaz. Adin horietan kirolak haurrengan duen garrantzia azpimarratzen du eta, zentzu horretan, ez du aldaketa handirik ekarri bere izaeran; alegia, lege honetan ere kirol anitz praktikatzea, lehiaketa-kirola helburu bakarra ez izatea eta kirola borondate, gaitasun fisiko eta adinera egokitze beharraz ari da.

Lege honetan eskola kirolaren definizioa eta erakunde publikoen eskumenak ezartzen dira bati-bat.

Legearen arabera, ikasleek **nahitaezko eskolatze aldian irakas-orduetatik kanpo egiten duten kirol-jarduera antolatua** da eskola-kirola.

Zehazki Eusko Jaurlaritzari dagokio eskola-kirolaren oinarriak eta printzipioak, kirol-diziplinako araubidea eta lehiaketak finkatzea.

Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie EAEko eskola-kirolaren arloko arauak garatzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea.

Udalei, berriz, lurralde historikoetako foru-organoei onartutako eskola-kiroleko programak burutzea dagokie, haiekin koordinatuta jotatuz. Udalak elkarlanean ariko dira ikastetxeekin eta herriko kirol elkarteekin.

Funtsean, eskola kirola ikastetxeen bitartez egituratuko dela dio legeak, kirol klubak eta guraso elkarten laguntzarekin. Eta kirol federazioen administrazio egiteko-publikoetan jasotzen da, herri-administrazioarekin batera, eskola-kiroleko programak garatzen parte hartu eta elkarlanean aritzeko beharra.

Alabaina, araudiz ezarriko diren baldintzak betetzen badira, foru-aldundiek baimena emango dute 15 urtetik beherako ikasleentzat eskola-kiroleko urteko programetan sartuta ez dauden kirol-lehiaketak antolatzeko, ikasle horiek federazio-lehiaketetan parte hartzeko, bai eta zenbait kirol-motatan teknifikazio-unitateak garatzeko ere. Foru aldundiek bideratzen, kalifikatzen eta baimentzen dituzte ere bere lurraldeko eskola-kirola lehiaketak eta Eusko Jaurlaritzak erkidego mailako eskola-kirola lehiaketak.



**125/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Eskolako Kirolari buruzkoa**, Legeak diseinatutako eskolako kirolaren eredia ezartzeko jaio zen.

Eskola kirolaren helburu nagusia haur kirolariaren hezkuntza garapenaosatzea izango da, kirolari bakoitzaren banakako beharrianak ere asebetez. Hala nola, haurren heziketa integrala bilatuko du, sarbidea eta parte-hartzea bermatuz berdintasunez eta sexu estereotipo eta rolez kanpo, haurren nortasuna era armoniatsuan garatuz, bai eta geroko adinetan ere kirola modu jarraituan egin ahal izatea eta bizimodu osasuntsua bermatuko duten baldintza fisiko eta kirol ohitura batzuk eskuratzea baliatuz.

Helburu hauek gauzatzeko, dekretu honen bitartez Eskolako kirolaren eredia ezartzeko oinarrizko arauak finkatuko dira, Foru Aldundien eskolako kirolaren programak garatuz. Hau da, lurralde bakoitzaren ezaugarri sozio demografiko eta geografikoetara egokituz, baina une oro ezarritako printzipio orokorrak, ezaugarriak eta helburuak errespetatuz. Helburu hau errespetatu asmoz, Dekretuak Eskolako Kirolaren Euskal Batzordea sortzen du.

Dekretua zentzu horretan asmo handikoa da, eta aipatutakoaz gain, beste printzipio batzuk ere erdietsi nahi ditu; besteak beste, haurrek bere ingurune naturalean kirola egitea, kirol modalitate eta ibilbide ezberdinak ezagutzea eta haien arteko oreka arrazoizkoa eskuratzea ahalbidetuko duen kirol aniztasuna eta, azkenik, adin txikikoekin harremanetan dauden eragileen gaitasuna eta prestakuntza ziurtatzea.

Eskolako kirolari buruzko programek gehienez hiru kirol ibilbide jasoko dituzte:

- a) Kirolean parte hartzeko ibilbidea
- b) Errendimenduari ekiteko ibilbidea
- c) Kirol talentuak eta promesak hautemateko ibilbidea

Kirol ibilbide horien barruan ikaskuntza jarduerak, lehiaketa jarduerak, hautemate jarduerak eta bestelako jarduerak eskaini ahal izango dira.

Gainera, bikoiztasunak saihestuko dira lehiaketa-jarduerak eta errendimendu-jarduerak antolatzerakoan. Horretarako gutxieneko adina ezartzen da programa jakin batzuetan parte hartzeko, jardueren eremu geografikoa mugatzen da eta programa horietan parte hartzeko eragileen egitura egokiak zein diren ere definitzen da.

Dekretuak ezarritako mugak gaindi ahal izateko beharrezkoa izango da beti dagokion foru aldundiaren baimena, kasu askotan Eskolako Kirolaren Euskal Batzordearen alde aurreko txostenarekin.

Eskaintza bideratzeko, onartuta dauden eragileak kontuan hartuko dira, batik bat ikastetxeak, baina baita kirol klubak, kirol federazioak eta herri erakundeak edo hauen izenean diharduten kirol zerbitzuko enpresak; hauek bai dira eskolako kirolaren jardueretan eman beharreko laguntza teknikoaz arduratzen direnak nagusiki.

Aipatu behar da ere, Eskolako kirolaren lehiaketetan parte hartzeko beharrezkoa dela eskolako kirolaren lizentzia izatea. Eta, 14 urte bitarte-arte, federazio lizentzia bat nahi bada derrigorrez foru organoek baimendua izan behar da.



## 2.2. Hiru foru aldundien araudia eta antolaketa

Ikus daitekeen bezala, inplikaturako sektore guztiek eskolako kirolaren programak lantzeko prozesuan parte hartzeko aukera duten arren, askatasun tarte zabala dute Foru Aldundiek programak lantzeko eta gauzatzeko.

Askatasun honen baitan, urteetan zehar, hiru foru aldundiek Eskola kirola programa zabalak landu eta eskaini dituzte, non araudi propioa lantzen duten, diru-laguntza deialdiak argitaratu, hitzarmenak sinatu, formakuntza saioak eman, argitalpen bereziak egin eta sentsibilizazio kanpainak sustatzen dituzten.

Hiru Foru aldundietan egoera ezberdina den arren, hirurak, urtero, beraien jardueren programa onartu eta argitaratzen dute. Jarduera programak dira eskola kirolaren programen bihotza. Jarduera programak urtebeteko iraupena du eta bertan kirol jarduera ugari eskaintzen dira eskolako kirolari buruzko dekretuak ezartzen dituen ibilbidetan antolatuak: parte-hartzeko ibilbidea, errendimenduan hasteko ibilbidea eta talentudunak eta etorkizuneko kirolariak identifikatzeko ibilbidea. Programetan jarduera guztien ezaugarriak, parte hartze adina, kategoriak eta parte hartzeko beharrezko baldintza guztiak zehazten dira; eta, askoren ustea kontrakoa izan arren, lehiaketa-jardueraz gain, beste motatako jarduerak ere lantzen dira; hala nola, ikaskuntza jarduerak eta hautemate jarduerak.

Antolakuntza aldetik, jarduera guzti hauek aurrera eraman ahal izateko, eragile ugari hartzen dute parte. Hiru foru aldundiak, bakoitzak tokian tokiko ezaugarriak jarraituz, modu ezberdinetara antolatzen dira.

**Arabako Foru Aldundiak**, adibidez, Arabako Kirol Federazioekin hitzarmenak sinatzen ditu urtero (33 hitzarmen guztira) zehazki eskola kirola lantzeko. Orain dela 7 bat urte hitzarmen eredu bat onartu zuten eta orduz gero, urtean bitan federazio bakoitzarekin hitzarmena egokitu eta sinatzen dute bai hastapen ikastaroetarako eta bai partaidetza eta errendimenduko lehiaketetarako emango duten babes teknikoa zehaztuz. Hitzarmenetan federazio bakoitzak antolatu dituen ekitaldiak jasotzen dira nagusiki, materialaren erosketa ere beste batzuetan. Baina hitzarmenetan ez da zehazten ekintza horiek ze baldintzatan eskaini behar diren edo ze hezkuntza printzipioetan oinarritu behar diren, adibidez.

Horrez gain, Arabako Foru Aldundiak baditu jolas kirola eta kirolaren sustapena orokorrean diruz laguntzeko deialdiak eta bere lurraldeko udalekin ere hitzarmenak dituzte igeriketa kanpainak lantzeko eta eskola kiroleko ekintzetarako autobus zerbitzuak emateko herrietan.

Hitzarmenetan eta diru-laguntzatan ez da aipamen zehatzik egiten hizkuntza erabilerari baina Eskola kirolean euskararen erabilera bultzatzeko gida bat badu.

**Bizkaiko Foru Aldundiak** ere lankidetzan hitzarmenak sinatzen ditu urtero Bizkaiko Kirol Federazioekin. Hitzarmen horietan kirol federazioek aldundiak dituen kirol programetan eman beharreko babesak zehazten da, tartean eskola-kirolean eman beharrekoa.

Horrez gain, urtero Dekretu bat argitaratzen du, non Bizkaiko Eskola Kirola programaren barruan sartuta dauden lehiatzeko kirol jardueretan eta/edo hezkuntza-jardueretan parte hartzen duten erakundeentzako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten diren. Onuradunak bere lurraldean irakaskuntza ofizialak ematen dituzten





eskolak eta euren guraso elkarteak, kirol elkarteak, kirol klubak, udalak edo beraien organismo autonomoak izan daitezke. Hainbanaketa sistema erabiltzen da eta hainbat irizpide ezberdin baloratzen dira; hala nola, entrenatzaileen titulazioa, emakumeen presentzia, partaidetza, gure kirolen bateko partaidetza izatea edo Eskola Kirol proiektua izatea, adibidez. Eskola Kirol proiektua berezia da Bizkaian. Sortu zenean, 2002an, ikastetxeei bakarrik zuzendua zegoen baina 2010ean deialdia beste erakundeetara zabaldu zen. Proiektu honetan erakundeak Eskola kirola nola landu behar duen zehaztu behar du eta ondoren, barematu eta diruz laguntzen da.

Dekretuaren betebeharretan jasotzen da EAeko hizkuntza ofizial biak erabiltzea diru-laguntzaren xede diren jardueren komunikazioan (publizitatea eta zabalkundea). Dibulgazio alorrean, adibidez, lan eskerga egin du BFAk (liburuak, sentsibilizazio kanpainak, jardunaldiak, formakuntza...)

**Gipuzkoako Foru Aldundiak**, eskolako kirolaren antolaketarako, bere lurraldea 11 eremu ezberdinetan zatitua du (Bidaxoa, Oiartzun, Donostia, Donostialdea, Kosta, Urola, Deba Behera, Deba Garaia, Goierri Garaia, Goierri Behera eta Tolosaldea) eta hauei babes emateko 7 bulego ditu. Jarduera programa tokian tokira egokitzeko aukera dago eta eremu bakoitzeko eragileek (udalek eta ikastetxeek nagusiki) eremu bakoitzean lantzen diren jarduerak erabakitzen dituzte. Ondoren, praktikan jartzen direnak kirol klubak laguntzaz.

Gipuzkoan Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilu bat ere bada, partaidetza izaerako aholkularitza organo bat 1995/1996 ikasturteetik ikastetxeetako, udaletako, kirol federazioetako eta Gipuzkoako Kultura, Gazteria eta Kirola Departamentuko kideak biltzen dituena.

GFAk kirolaren antolaketan parte hartzen duten erakunde ezberdinei bideratutako diru-laguntza deialdiak ditu eta horien baitan, eskola kirola ere diruz laguntzen da.

Bat Gipuzkoako kirol federazioei bideratua. Diru laguntza honek lau finantzaketa-lerro ditu:

1. Kirol federazioen ohiko jarduera
2. Eskola kirolerako laguntza teknikoa
3. Teknifikazio programak (16 urtetik aurrera)
4. Gazteen Kirol Plana (12-18 urte bitarte)

Bigarrena, Gipuzkoako toki erakundeei kirol arloko diru-laguntzak emateko oinarriak zehazten dituen deialdia da. Deialdi honek bost laguntza lerro ditu:

1. Kirola kudeatzeko eta bultzatzeko toki egiturak
2. Igeriketan ikastea
3. Udako jolas kiroleko UDA kanpainak
4. Denontzako kirolaren sustapena
5. Desgaitasuna duten pertsonentzako kirol jarduerak

Bada hirugarren deialdi bat Gipuzkoako kirol klubak zuzendua. Honek 6 laguntza lerro ditu eta, tartean, eskola kiroleko tartea ere lantzen da.

1. Gipuzkoako klubak
2. Arraunketa klubak
3. Gazteen artean kirola sustatzeko plana ezarri eta garatzea



4. Txirrindularitza klubak
5. Pilota klubak
6. EAEGotik kanpo lehiatzen diren taldeak dituzten klubak

Laugarren deialdia da zabalena. Kirol gaietako diru-laguntza oinarriak ezartzen dituen deialdia. Hemen, aparteko lehiaketan antolaketa, arautu gabeko prestakuntza eta kirol titulazioak lortzeko programak, kirol materiala erostea, igerian ikasteko jarduerak ikasleentzat, desgaitasuna duten pertsonentzako kirol jarduerak, kirol instalazioak hobetu eta berritzeko proiektuak eta kirolean berdintasunaren alde egiten duten proiektu eta programak babesten ditu. Hauetako asko eskola kirolari lotuak.

Deialdiz deialdi ezberdintasun txiki batzuk egonda ere, guztien betebeharretan jasotzen da bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea lagundutako jarduera eta programen inguruko adierazpen guztietan. Eta, kasu gehienetan, baloratzeko irizpidetan ere jasotzen da euskararen erabileraren normalkuntza.

Aipatu diru-laguntza deialdiez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Kirol Federazioen Elkarteari zuzendutako diru-laguntza izendun bat ere badu.

Horrez gain, GFAk baditu bi foru agindu, bere eskola kiroleko jardueren programatik at, adin honetan lantzen diren kirol teknifikazioko unitateak baimentzeko. Bat orokorra eta bestea bere aplikazioa arautzen duena saskibalo, eskubalo, futbol, areto futbol eta errugbiko hastapeneko unitateak sortzeko. Kirol eskola hauek hastapeneko ekintzak lantzen dituzte eta gehienetan kirol klubetan baita daude.

Eta dagoeneko ibilbide zabala duen Kirola Euskaraz programa. Hasieran Debagoieneko zenbait udalek sortu zuten arren, gaur egun Gipuzkoa osora zabaldua dagoen egitasmoa, kirol arloko eragileak sentsibilizatu eta prestatu eta euskaraz kirol materiala sortzea helburu duena.

### **2.3. Udaletxeen egunerokoa**

Udaletxeek Eskola kirolaren egunerokotasunean ardura garrantzitsua dute. Udalen baliabideen gain egiten dira eskola kiroleko jarduera ugari (instalakuntzak, pertsonala, udalaren materiala...). Baina, gainera, eskola kiroleko programen bultzadan funtsezko rola dute, lurralde batzuetan beste batzuetan baino nabariagoa den arren.

Elkarlan hau lantzeko eredu ezberdinak daude. Ohizkoenak, garrantziaren arabera, diru-laguntza izendunak, norgehiagoka bidezko diru-laguntzak, hitzarmenak eta laguntzak jenerotan dira. Eta euskarri horietan ezartzen diren baldintzetan erabakigarriak dira udalak.





### 3. Kirol begirale eta entrenatzaileen formakuntza

---

Bai euskararekiko, bai beste hezkuntza balore batzuekiko ere, eskola kirolean jarduten duten begirale eta entrenatzaileen rola funtsezkoa da.

Ez da gai erraza. Eskola kirolean jarduten duten begirale gehienak oso gazteak dira, asko adin txikikoak, borondatez edo ia borondatez jarduten dutenak. Sarri ikastetxe bertako ikasle nagusiak dira, gehienez bi urtez jarduten dutenak begirale lanetan. Orokorrean, ez dute kirol formakuntzarik.

Kirol eskoletan jarduten duten entrenatzaileek ere, oro har, kirol formakuntza baxua izaten dute eta guraso asko egoten dira boluntario lanetan.

Azken urteotan kirol erakunde publikoen kezka izan da begirale eta entrenatzaile hauen prestaketa hobetzea. Ikasketa ofizialetan txertatzen ez den kolektiboa da (ikasketa ofizialak 275 ordutik 400 ordu bitarteko iraupena dutela hartu behar da kontutan). Hori dela eta, foru aldundiek azken urteotan online Asmoz plataformaren bidez, 20 ordu teoriko eta 15-20 ordu praktikoko dituen formakuntza eskaini dute. Formakuntza hau ez da ofiziala, baina bai Eusko Jaurlaritzak eta bai Foru aldundiak lanean dihardugu maila honetan oinarritzko formakuntza ofizial bat eskaini nahian.

Kontutan izan behar da ere laster Kirol Lanbideen legea onartuko dela eta bertan, 2019rarte aldi iragankor bat egongo den arren, kirol begirale eta entrenatzaileek oinarritzko prestakuntza bat egiaztatu beharko dutela eskola kirolean aritzeko. Ikasketa horiek ofizialak izango dira, mailaren arabera sailkatuak (gradua, modulu teknikoak, profesionalizazio ziurtagiria).

Hiru foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren asmoa da kirol begiraleen oinarritzko ikastaroa ikasketa ofizialen baitan eskaintzea; nahi duenak, ondoren, jarraitzeko aukera izan dezan.

Gaur egun kirol formakuntza eskaintza euskaraz mugatua da. Unibertsitatean formakuntza euskaraz eta erdaraz eskaintzen da (Irakasle-eskola eta Jarduera fisiko eta kirol fakultateetan). Kirolene, kirol arloko irakaskuntza bereziak eskaintzen dituen ikastetxe ofizial publiko bakarra EAEn, eta ia eskaintza osoa erdaraz da. Federazioek oso eskaintza gutxi egiten dute euskaraz (Gipuzkoako surf federazioak adibidez, formakuntza deialdia euskaraz eta erdaraz egiten du). Udalek, batzuetan, enpresak kontratatzen dituzte entrenatzaileei saioak euskaraz emateko (Getxoko udala, adibidez). Arabako Foru Aldundiak baditu gidak bati gimnasioetan fitnessa eta bai eskola kirola euskaraz lantzeko. Baina orokorrean, ekintza puntualak dira.



## 4. Ondorioak

---

EAE En Eskolako kirolaren antolakuntza berezia da, Estatuan bakarra, dagoeneko 25 urteko ibilbidea duena bere bizkarrean.

Araudi orokorrak tarte zabala eskaintzen die foru aldundiei kirol programak garatu eta gauzatzeko eta hauek, eskumen horri jarraiki, ibilbide zabal eta oparoa egin dute eskola kirola programetan tokian tokiko ezaugarrietara eta baldintzetara egokituz. Hori dela eta, egitura eta lan-dinamika egonkorrak garatu dira eskolako kirolaren inguruan eta partaidetza maila altuak lortu dira.

Baina bestalde, garapenean izandako askatasun hori bera dela eta, urteen poderioz, araubide eta antolaketa ezberdinak gauzatu dira hiru lurraldeetan.

Ondorioz, baliteke lurralde ezberdinetan bizi diren adin bereko bi haurrek eskaintza eta baldintza ezberdinak bizitzea eskolako kirolaren baitan. Egoera horrek, berez, ez du zertan kaltegarria izan behar. Baina batzuetan bidegabea dela uste dute kirolariek edo/eta beraien arduradunek eta arazoak azaleratzen dira.

Gainera eskolako kirolaren sisteman eragile ugari hartzen dugu parte eta, tamalez, ez ditugu beti interes berberak jarraitzen. Benetan, praktikan, ikastetxeez gain, Eskola kirola aurrera daramatzatenak kirol federazioak, klubak eta hauen kirol-eskolak dira. Sarritan, azken hauen helburuak eta erakunde publikoenak eta ikastetxeenak ez datoz bat eta premiazkoa da eragile guztien hezkuntza eta hizkuntza baloreak bateratzea.

Gaur egungo erronkak dira, zentzu horretan, EAE eskolako kirol eredia homogeenagoa izatea, eta eskola kirolean parte hartzen duten eragileen formakuntza hobetzea, hizkuntza eta hezkuntza baloreak bermatuz.